

BERTARATUAK- ASISTENTES

Alkate-Udalburua

Beinat Herce Leceta

Zinegotziak

María Arantzazu Iregui Villar
Jose María Herce Isasmendi
Igor Ezpeleta Oregui
Jose Angel Petralanda Gil
Iñaki Madinabeitia Elorza
Rosario Arcarazo Arcarazo
Juan Luis Merino Sanabria
Jose Luis Cantero Morcillo

Idazkaria. Edurne Iturbe Lascurain.

Eskoriatzan, bi mila eta hamalauko apirilaren 10ean, arratsaldeko seiak eta erdietan, Udaletxeko Osoko Bilkuren aretoan, Beinat Herce Leceta alkate jauna buru dela eta goian aipatutakoak bertan direla bildu da Udalbatzarra, Ez Ohiko bilkuran, gai-zerrendan zehaztutako gaiei buruz hitz egiteko. Ez dira etorri Landa andrea eta Urrutia jauna.

En Eskoriatza, siendo las dieciocho horas y treinta minutos del día 10 de abril de 2014, en el Salón de Plenos de la Casa de Consistorial quedó constituido el Pleno de la Corporación en sesión extraordinaria bajo la Presidencia del Señor Alcalde- Presidente D. Beinat Herce Leceta ,con la asistencia de los señores que arriba se expresan para tratar de los asuntos reseñados dentro del Orden del Día. No asisten la Sra. Landa y el Sr. Urrutia.

1.- ALKATEAREN ADIERAZPENAK.

1.1. 2013ko AURREKONTUAREN KITAPENA.

Alkateak Udalaren eta Telesko Udal Telebista Fundazioaren 2013ko aurrekontuaren kitapenaren berri eman du.

2.2.- KREDITU ALDAKETA ESPEDIENTEA:

Ondoren, azkenengo osoko bilkuratik Alkate erabakiz onartutako espediente aldaketen edukiaren berri eman du.

Espediente bakoitzaren laburpen bat transkribatzen da:

ZKIA: 2
KREDITU TRANFERENTZIA PROPOSAMENA
Gastu partidak: transferitu nahi diren kredituak (bajak)

Partida	Izena	Hasierako kreditua	Gutxipena	Amaierako kreditua
0303.481.313.70.01	Diru Laguntza: Emakumea	10.000,00	5.000,00	5.000,00
GUZTIRA ...		10.000,00	5.000,00	5.000,00

Gastu partidak: gehitu nahi diren kredituak (altak)

Partida (*)	Izena	Hasierako kreditua	Gehikuntza	Amaierako kreditua
0303.227.313.70.07	Aholkularitza juridikoa: Emakumea	0,00	5.000,00	5.000,00
GUZTIRA ...		0,00	5.000,00	5.000,00

* Aurrekontu-partida berriak sortu ahal izango dira

ZKIA:3

Diru-sarreraren egoera

Kreditu gaikuntza finantzatzen duten diru-sarrerak honako hauek dira:

Aurrekontuetako kontzeptua	Izena	Hasierako aurreikusp	Behin betiko	Aldea
-----------------------------------	--------------	-----------------------------	---------------------	--------------

		ena	aurreikuspena	
.0201.721.000.00.01	Debagoieneko Mankomunitatea. Ekarpena: hondakinak. Ekarpen eta Larrialdigune	0,-	51.792,68 €	51.792,68 €
GUZTIRA		0,-	51.792,68 €	51.792,68 €

Gastuen egoera

Proposatutako kreditu gaikuntzek aurrekontuko ondorengo partidetan dute eragina:

Aurrekontuko partida	Izena	Hasierako aurreikuspena	Behin betiko aurreikuspena	Aldea
0101.601.442.10.08	Hirigintza.Hondakinak.Larrialdigunea.	0,00€	29.784,63€	29.784,63 €
0103.601.442.10.09	Elizateak..Hondakinak. Ekarpen guneak.	0,00 €	22.008,05 €	22.008,05 €
GUZTIRA		0,00 €	51.792,68€	51.792,68€

ZKIA: 4

KREDITU TRANFERENTZIA PROPOSAMENA

Gastu partidak: transferitu nahi diren kredituak (bajak)

Partida	Izena	Hasierako kreditua	Gutxipena	Amaierako kreditua
0701.121.222.10.02	Destino osagarria:Udaltzainak	42.526,01	5.410,00	37.116,01
GUZTIRA ...		42.526,01	5.410,00	37.116,01

Gastu partidak: gehitu nahi diren kredituak (altak)

Partida (*)	Izena	Hasierako kreditua	Gehikuntza	Amaierako kreditua
0701.832.222.10.01	Epe luzerako aurrerakina:Udaltzainak	0,00	5.410,00	5.410,00
GUZTIRA ...		0,00	5.410,00	5.410,00

* Aurrekontu-partida berriak sortu ahal izango dira

KREDITU ALDAKETA.ZKIA: 5. KREDITU TXETAKETA.

AURREKONTUKO PARTIDA		DESKRIBAPENA:		ZENBATEK OA
AURREKO EKITALDIKOA	EGUNGO EKITALDIKOA	KOD.	IZENA:	
0101.227.431.00.31.05.01	0101.227.431.00.31.05	C	SANTA MARINAKO GESTIOA	38.742,03
01.227.432.00.07	0101.227.432.00.07.13	A-B	AZTERKETA,LAN TEKNIKOAK:HIRIGINTZA	1.936,00
0101.601.511.00.04.06	0101.601.511.00.04.06	C-D	URBANIZAZIOA:SANTA MARINA	89.976,13
0101.601.511.00.10.10	0101.601.511.00.10.10	C-D	URBANIZAZIOA:SANTA MARINA	4.430,32
0101.643.432.00.01	0101.643.432.00.01.13	A-B-D	PROIEKTUAK IDAZTEA	2.880,00
0102.210.511.00.01	0102.210.511.00.01.13	A-B	MANTENIMENDUA:BIDE PUBLIKOAK	23.985,55
0102.601.511.00.04	0102.601.511.00.04.13	B-D	ERDIKO KALEAREN PEATONALIZAZIOA	21.779,07
0102.601.511.00.05	0102.601.511.00.05.13	B-D	SANTA MARINAKO APARKALEKUA.	60.481,85
0301.481.313.50.01	0301.481.313.50.01.13	B	DIRU LAGUNTZA: GKE.	3.244,00
0303.481.313.70.01	0303.481.313.70.01.13	B	DIRU LAGUNTZA:AMUSKA.	800,00
0405.481.456.20.01	0405.481.456.20.01.13	B	DIRU LAGUNTZA: GAZTERIA	150,00
0406.481.452.60.01	0406.481.452.60.01.13	B	DIRU LAGUNTZA: ESKOLA-KIROLA.	2.576,54
0503.481.622.20.01	0503.481.622.20.01.13	B	DIRU LAGUNTZA: AXTROKI MERKATARI ELKARTEA	800,00
0102.601.511.00.08	0102.601.511.00.08.13	A-D	BESTELAKO OBRAK:MUGIKORTASUNA	7.000,00
			KREDITUAK GUZTIRA	258.781,49

Aurrekontuan kreditu txertaketa finantzatzeko erabilitako finantza baliabideak.

DIRU SARREREN KONTZEPTUA		KO D.	DESKRIBAPENA	ZENBATEKOA
AURREKO EKITALDI A	GAUR EGUNGO EKITALDIA			
	0201.870.000.00.02...	A	Diruzaintzako gerakina lotutako finantziarioa duten gastuetarako.	133.148,48
	0201.870.000.00.02	C	Diruzaintzako gerakina gastu orokorretarako.	125.633,01
TXERTATU BEHARREKO KREDITUAK GUZTIRA				258.781,49

ZKIA: 6

KREDITU GEHIKUNTZAK

Kapitulua	Izena	Gehikuntzak
2	Ondasun arrunten eta Zerbitzuen erosketa.	35.000,00 €
6	Inbertsio errealak.	33.320,00 €

GEHIKUNTZAK GUZTIRA...		68.320,00

FINANTZATZEN DITUZTEN BALIABIDEAK

Kapitulua	Izena	GEHIKUNTZAK
8	Finantza Aktiboak	68.320,00 €
GUZTIRA		68.320,00 €

2.3.- HERRI KONTUEN EUSKAL EPAITEGIAREN TXOSTENA

Herri Kontuen Euskal Epaitegiak 2012ko ekitaldiari buruz egindako fiskalizazio txostenaren berri ema du Alkateak.

2.- ZARIMUTZEKO AUZO ALKATE KARGUA ONARTZEA.

2011ko irailaren 8ko Alkate erabakiz Zarimutzeko Elizateko Alkatearen ordezkari izateko (auzo alkate) Ane Miren Gaztañaga Pagalday andrea izendatu zen.

Alkatearen ordezkariak bere karguari uko egin zion 2014ko otsailaren 27an, eta 2014ko martxoaren 19ko Alkate erabakiz Maria Jesus Fernandez de Arroyabe Urcelay izendatu zen bere ordezkari.

Maria Jesus Fernandez de Arroyabe Urcelay andrea osoko bilkura honetan dago, eta berriaz onartu du Zarimutzeko auzo alkate kargua.

3.- 2013KO AURREKONTUAREN LIKIDAZIOA: Aurrekontu egonkortasunari eta finantza iraunkortasunari buruzko txostenen berri jasotzea.

Bertaratutako udalbatzarkide guztiek Idazkaritza-kontuhartzaitzak 2013ko aurrekontuaren likidazioaren gaineko aurrekontu egonkortasunari eta finantza iraunkortasunari buruz egindako txostenen berri jaso dute eta jakinaren gainean gelditu dira.

Idatzita jasota gelditu dadin, aipatutako txostenaren KONKLUSIOAK izeneko zatia transkribatzen da ondoren.

- AURREKONTU EGONKORTASUNARI BURUZKO TXOSTENAREN ONDORIOAK

2013ko Aurrekontu Orokorren kitapen espedienteak betetzen ditu aurrekontu egonkortasunari eta finantza iraunkortasunari buruzko 2013rako helburuak, eta ez du betetzen gastu araua; beraz, Udala behartuta dago urte betean egoera zuzenduko dela bermatuko duen ekonomia eta finantza plan bat egitera.

Hala ere, gastu araua ez bada bete diruzaintzako gerakina erabili delako, plan horren ordeztu horren berri jasoko duen Kontuhartzailetzako txostena jakinarazi beharko zaio Udalbatzarrari. Txosten horretan erakundearen finantza iraunkortasuna aztertu eta ebaluatu beharko da.

- **FINANTZA IRAUNKORTASUNARI BURUZKO TXOSTENAREN ONDORIOAK**

Txosten honen aurrekarietan azaldutako datuetan ikusten da Zaldibar Antzokiko eraikina birgaitzeko lanak eginda gastu batzuk sortuko direla etorkizunean, eraikina bera mantentzeko sortzen direnak eta gaur egun kuantifikatu gabe daudenak.

Kontuan izanik gastu horiek Ibarraundi eraikinak dituenaren antzekoak izan daitezkeela, Eskoriatzako Udalak badu tarterik gastu horiei aurre egiteko etorkizuneko finantza jasagarritasunari eragin gabe, nahiz eta tarte hori estua dela iritzi.

Beraz, etorkizuneko finantza jasagarritasuna bermatzeko helburuarekin gastu arrunta optimizatzeko edota egungo diru sarrerak igotzeko neurriak hartzea gomendatzen da.

4.- DEIALDIKO GAI ZERRENDAN HAINBAT GAI SARTZEA BERRESTEA.

Aho batez erabaki da gai zerrendan honako gai hauek sartzea:

-ESKORIATZAKO UDALERRIKO IRABAZI ASMORIK GABEKO ELKARTEEI ETA TALDEEI 2014AN EGITEKO EKINTZETARAKO KULTUR ARLOKO DIRU LAGUNTZAK EMATEKO OINARRIAK ONARTZEA.

.-ESKORIATZAN KIROL ZERBITZUA EMATEKO KONTRATAZIOA: BALDINTZA AGIRIA ONARTZEA ETA KONTRATAZIO ESPEDIENTEA HASTEA.

- ETORKINEN ERAGIN HANDIENA DUTEN UDALETAKO GIZARTE ZERBITZUETARAKO EUDELEK DENBORA ERREALEAN ETA TELEFONO BIDEZ EGITEKO DUEN ITZULPEN ETA INTERPRETATIO ZERBITZU EZ-PRESENTZIALERA ATXIKITZEA ESKORIATZAKO UDALA.

- OLAZAR JUBILATU ETXEKO TABERNA-ARETO ZERBITZUA USTIATZEKO ESKUBIDEAREN ESLEIPEN KONTRATUA LUZATZEA.

5.- DEBAGOIENENKO MANKOMUNITATEKO HAINBAT ORGANOETARAKO UDAL ORDEZKARIAK IZENDATZEKO PROPOSAMENA.

Pertsonal batzorde informatzaileak egindako proposamenaren arabera, eta Merino jauna abstenituta eta bertaratutako gainontzeko udalbatzarkideek alde bozkatuta, Udalbatzarrak honako hau ERABAKI DU:

Lehenengoa.- Debagoieneko Mankomunitateko organoetako batzuetan Udal honetako ordezkari izateko egindako izendapenak balio gabe uztea, eta horien ordeztu ondorengo zinegotziak izendatzea:

- MANKOMUNITATEKO GOBERNU JUNTA

Titularra: Igor Ezpeleta Oregi
Ordezkoa: Beinat Herce Leceta

- KIROL BATZORDEA.

Titularra: Igor Ezpeleta Oregi
Ordezkoa: Jose Angel Petralanda Gil

6.- KULTURA BATZORDE INFORMATZAILERAKO ETA GIZARTE ZERBITZUETAKO BATZORDE INFORMATZAILERAKO KIDEAK ETA LEINTZ UDAL EUSKALTEGIA MANKOMUNITATERAKO ORDEZKO UDAL ORDEZKARIA IZENDATZEKO PROPOSAMENA.

Kontuan hartu beharrekoak:

Alde batetik, Itziar Martinez Iregui andreak zinegotzi kargua utzi zuela 2013ko apirilaren 30ean. Kargua utzi aurretik Gizarte Zerbitzuetako batzorde informatzaileko eskubidedun kidea zen, eta orain arte ez da bere ordezkari izendatu.

Bestalde, Itziar Martinez andreaken ordezkari Mainer Landa Ruiz de Azua andreak hartu zuela zinegotzi kargua 2014ko irailaren 24an. Udalbatzarrak hartutako hainbat erabaki bidez, Kultura batzorde informatzaileko kide eta Leintz Udal Euskaltegia Mankomunitateko batzorde kudeatzaileko kide izendatua izan zen. Gaur egun, haurdun dagoelako, ezin ditu bete zinegotzi karguak eskatutako funtzio guztiak, eta ezin da jakin noiz arte iraungo duen egoera horrek. Horregatik, aldi baterako beste zinegotzi batzuk izendatu behar dira bera ordezkatzeko bere funtzioei normaltasun osoz aurre egin ahal izan arte.

Egindako proposamenen arabera, eta Merino jauna abstenituta eta bertaratutako gainerako zinegotziek alde bozkatuta, Udalbatzarrari honako hau proposatzea erabaki da:

Lehenengoa.- Beinat Herce Leceta jauna Gizarte Zerbitzuetako batzorde informatzaileko kide izendatzea.

Bigarrena.- Jose Mari Herce zinegotzi jauna Mainer Landa Ruiz de Azua andreaken ordezkari izendatzea Kultura batzorde informatzailean.

Hirugarrena.- Jose Angel Petralanda Gil jauna Mainer Landa Ruiz de Azua andreaken ordezkari kide izendatzea Leintz Udal Euskaltegioko batzorde kudeatzailean.

7.- UDAL ERROLDAKO DATUAK EGIAZTATZEKO BIDEGIREKIN SINATU BEHARREKO LANKIDETZA HITZARMENA.

Gipuzkoako Lurralde Historikoan AP-8 eta AP-1 autopistak erabiltzeagatik ordaindu beharreko kanonean beherapenak egitea eskatzen dutenek Gipuzkoako udalen batean erroldatuta egon behar dira beherapen hori jaso ahal izateko. Baldintza hori egiaztatzeko datu pertsonalak zein baldintzetan tratatuko dituen BIDEGIk eta enpresa horrek gorde beharreko konfidentzialtasuna ezartzea da BIDEGI AZPIEGITUREN AGENTZIA-AGENCIA GUIPUZCOANA DE INFRAESTRUCTURAS S.A.-ren eta Udal honen artean sinatzeko proposatutako lankidetzaren helburu nagusia.

Hori horrela, eta Pertsonal batzorde informatzaileak egindako proposamenaren arabera, Udalbatzarrak, aho batez, honako hau ERABAKI DU:

LEHENENGOA.- Proposatutako hitzarmena sinatzea. Hitzarmena akta honekin batera doa, 1 eranskin gisa.

Bigarrena.- Beinat Herce alkate jaunari eskumena ematea aipatutako hitzarmena sinatzeko Udalaren izenean eta ordezkaritzan.

8.- ESKORIATZAKO UDALERRIKO IRABAZI ASMORIK GABEKO ELKARTEEI ETA TALDEEI 2014AN EGITEKO EKINTZETARAKO KULTUR ARLOKO DIRU LAGUNTZAK EMATEKO OINARRIAK ONARTZEA.

Bertaratutako udalbatzarkide guztiek dute Kultura batzorde informatzaileak emandako diktamenaren kopia bat.

Egindako proposamenaren arabera, eta bertaratutako udalbatzarkide guztiek alde bozkatuta, Udalbatzarrak honako hau ERABAKI DU:

Lehenengoa.- Eskoriatzako udalerriko irabazi asmorik gabeko elkarteei eta taldeei 2014an egiteko ekintzetarako kultur arloko diru laguntzak emateko oinarriak onartzea.

Bigarrena.- Oinarri horiek jendaurrean jartzea 30 egun baliodunez iragarkia Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratzen denetik kontatzen hasita, nahi duenak oinarriak aztertu eta, hala iritziz gero, erreklamazioak jarri edo iradokizunak egin ditzan.

Hirugarrena.- Iradokizunik edo erreklamaziorik ez balego, OINARRI horiek behin betiko onartutzat joko dira bestelako erabakirik hartu beharrik gabe.

Laugarrena.- Ahalmena ematea Alkate jaunari oinarriak onartu ondoren bertan araututako diru laguntzetarako deialdia egiteko eta dagokion gastua baimentzeko.

9.- 2013-2015 DIRU LAGUNTZEN PLAN ESTRATEGIKOA EGUNERATZEA.

Udalbatzarrak, 2013ko urriaren 29an egindako bilkuran, ondorengo erabakiak hartu zituen:

Lehenengoa.- *Hasiera batean onartzea Eskoriatzako Udalaren 2013-2015 diru laguntzen plan estrategikoa.*

Bigarrena.- *Plan hori jendaurrean jartzea 30 lanegunez iragarkia Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratzen denetik kontatzen hasita, nahi duenak plana aztertu eta, hala iritziz gero, erreklamazioak jarri edo iradokizunak egin ditzan.*

Hirugarrena.- *Iradokizunik edo erreklamaziorik ez balego, plan hori behin betiko onartutzat joko da bestelako erabakirik hartu beharrik gabe.*

Hasierako onarpenaren aurkako erreklamazio edo iradokizunik egon ezenez, eta Toki Araubidearen Oinarriak Arautzen dituen apirilaren 2ko 7/85 Legearen 49. artikularen c) letran apirilaren 21eko 11/1999 Legeak gehitutako azken paragrafoan aurreikusitakoaren arabera, Udalbatzarrak 2013ko urriaren 29an hasiera batean hartutako erabakia behin betikotzat bihurtu zen.

Plan horrek, 8. eta 10. artikuluetan, eranskinako dokumentuetara bidaliz, 2013ko ekitaldirako aurreikusitako laguntzak aurreikusten ditu.

2014ko ekitaldirako aurrekontua onartuta, planeko ERANSKINAK aurrekontu horren edukira egokitu behar dira.

Aurrez esandakoarengatik, Ogasun batzorde informatzaileak egindako proposamenaren arabera, Merino jaunak aurka bozkatuta eta bertaratutako gainerako udalbatzarkide guztiek alde, Udalbatzarrak honako hau ERABAKI DU:

Lehenengoa.- ERANSKINEAN jaso bezala eguneratzea 2013-2015 diru laguntzen plan estrategikoaren ERANSKINAK, plana 2014ko ekitaldiko aurrekontuen edukira egokitzeko.

MERINO JAUNAREN BOTO AZALPENA: Hau esan du: *Aurka bozkatuko dut, proposamen horretan UDALBITZArako diru laguntza ematea aurreikusten delako, eta hori zuen hautetsien elkarte da (alkateari esan dio), eta ez zait zuzena iruditzen.*

10.- GAZTAÑADUI 27 ETA 29 HELBIDEKO UDAL LOKALAK ALOKATZEKO UDALBATZARRAK HARTUTAKO ERABAKIA ALDATZEKO PROPOSAMENA.

Udalbatzarrak, 2014ko otsailaren 25ean egindako bilkuran, Gaztañadui 27-29 helbidean dauden bi udal lokalak alokatzeko espedienteari hasiera ematea erabaki zuen.

Idazkariak bere garaian jakinarazi bazuen ere bi lokal horiek ondare bezala kalifikatuta zeudela udal inbentarioan, ondoren ikusi ahal izan du lokaletako bat, inbentarioan ondare bezala kalifikatuta baldin badago ere, ZUBIATEKO LABEAREN aprobetxamendurako erabiltzeko dela, eta beraz, benetako kalifikazioa ez dela ondarezkoa baizik eta jabari publikoko ondasunekoa.

Akats hori ikusita, eta kontuan izanik jabari publikoko ondasunak ezin direla saldu edo alokatu, bidezkoa da Udalbatzarrak 2014ko otsailaren 25ean hartutako erabakia aldatzea eta ZUBIATEKO LABEAREN zerbitzuari lotutako lokalaren lizitazioa alokatze prozesutik kanpo uztea.

Aurrez esandako guztia ikusita, Ogasun batzorde informatzaileak egindako proposamenaren arabera, eta bertaratutako udalbatzarkide guztiek alde bozkatuta, Udalbatzarrak honako hau ERABAKI DU:

Lehenengoa.- Uko egitea ondorengo udal lokala errentan emateari:

1. LOKALA

ETXABEKO 3. MERKATARITZA-LOKALA. 171,69 m²-ko azalera du, eta honako mugak: iparraldean, argi, gas eta ur kontagailuen gelak eta 27. eskapea; hegoaldean, Gaztañadui kalera doan oinezkoentzako bidea; ekialdean, 1. lokala, zeramika labea dagoena; eta mendebaldean, ikastetxetik gelditzen den lurzatitik bereizten duen oinezkoentzako bidea.

Bigarrena.- Ondorengo udal lokala lehiaketa publiko bidez alokatzeko espedienteari hasiera emateko erabakia berrestea:

2. LOKALA

GAZTAÑADUI 27 ETXABEKO 2. MERKATARITZA-LOKALA. 152,49 m²-ko azalera du, eta honako mugak: iparraldean, landarezko plataforma horizontalaren eta Deba ibaiaren harri-lubetaren ondoko oinezkoentzako eta ibilgailuentzako bidea; hegoaldean eta ekialdean, Gaztañadui kalerako oinezkoentzako bidea; eta mendebaldean, 1. lokala, zeramika labea dagoena.

Lokalak banatzeko proposamenak onartuko dira, eta baita horiengatik lehiatzea ere, betiere, proposatutako banaketak Eskoriatzan indarrean dauden planeamenduko arau subsidiarioetako hiri lurretan eta lurzoru urbanizagarrietan aplikagarri diren ordenantza erregulatzailerako hirugarren izenburuko 2. atalburuko "Baimenduriko beste erabilera batzuk helburu dituzten Behe-Oineko lokalei aplikatu beharreko baldintzak" izeneko 3.13 artikuluan ezarritako baldintzak betetzen baldin baditu, eta hala badagokio, arlo horretan aplikagarri den araudia.

Hirugarrena: Erabaki honetan deskribatutako ondasuna lehiaketa bidez alokatzea arautuko duen administrazio baldintza agiria onartzea.

Lehiaketa-tipoa gorantz hobetu ahal izango da, 60,42 euro m²-ko eta urteko errentatik abiatuta, BEZ edo bestelako zergarik gabe. Kontratuaren iraupena 10 urtekoa izango da, eta 5 urteko beste bi alditan luzatu ahal izango da.

Kontratazio Mahaia hauek osatuko dute:

- Mahaiburua: Beñat Herce, alkatea
- Mahaikideak: Juan Luis Merino, zinegotzia; Arantza Iregi, zinegotzia; María Pía Urrutia, udal arkitekto teknikoa eta Edurne Iturbe, idazkari-kontuhartzailea.
- Idazkaria: Edurne Iturbe

Laugarrena.- Lehiaketaren iragarkia GAOⁿ, kontratatzailearen profilean eta Udaletxeko iragarki oholean jartzea, gura duenak proposamenak aurkeztu ditzan hamabost eguneko epean.

11.- GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIKO OGASUN ETA FINANTZA DEPARTAMENDUAREN ETA ESKORIATZAKO UDALAREN ARTEAN ELKARRI INFORMAZIOA EMATEKO LANKIDETZA HITZARMENA SINATZEA.

Ogasun eta Finantza Departamentuarentzat eta Gipuzkoako Lurralde Historikoaren udalarentzat beharrezkoa da datu jakin batzuen lagapena, beraiei esleitutako zereginak garatzeko eta eskumenak betetzeko.

Zentzu honetan, ekainaren 22ko 11/2007 Legeak, herritarrek zerbitzu publikoetan sarbide elektronikoa izateari buruzkoak, jasotzen duenez, herritarrek ez dute herri-administrazioak dagoeneko bere esku duen datu eta agiririk aurkeztu beharrik. Herri-administrazioak bitarteko elektronikoz balia daitezke informazio hori eskuratzeko. Hala ere, datu pertsonalak direnean interesdunak baimena eman beharko du Datu Pertsonalak Babesteari buruzko 15/1999 Lege Organikoak edo lege mailako arau batek ezarritako eran, salbu eta eskatutako datu edo agiri horiei aplikagarri zaien legeriak murrizpenak ezartzen dituenean.

Printzipio horrekin bat, administrazio bakoitzak interesdunei buruz euskarri elektronikoan dituen datuetara iristea erraztu behar die gainerako administrazioei, eta horretarako datu horiek segurtasunez, osorik eta baliagarritasunez iristeko behar diren

baldintza, protokolo eta irizpide funtzional edo teknikoak zehaztu behar ditu, aipatutako Lege Organikoan xedatutakoaren arabera, eta segurtasun eskema nazionalean (ENS) eta sistema elkarreragingarritasunaren eskeman (ENI) ezarritako beharkizunak beteaz.

Bestalde, Zergen Foru Arau Orokorreko 91. artikulua honakoak ezartzen ditu, zerga administrazioak datuak eskuratzeari buruz ari dela:

“1. Agintariak, edozein izaera dutela ere, lurralde historikoetako titularrak, autonomia erkidegoetakoak, estatukoak eta toki entitateetakoak; organismo autonomoak eta entitate publiko enpresarialak; ganbera eta korporazioak, profesionalen elkarte eta elkarteak; gizarte aurreikuspeneko mutualitateak; gainerako entitate publikoak, Gizarte Segurantzaren gestora barne, eta, oro har, funtzio publikoan dihardutenak, behartuta daude Zerga Administrazioak xedapen orokorren bidez edo errekerimendu zehatzen bitartez eskatzen dizkien datu, txosten eta aurrekariak ematera, zerga alorrean garrantzitsuak direnean. Orobat, behartuta daude Zerga Administrazioari eta bere agentei euskarria, laguntza, sorospena eta babesa eskaintzera beren eginkizunak bete ditzaten.

.....

5. Aurreko artikuluan, artikulua honetako aurreko apartatuetan edo lege mailako beste arau batean xedatutakoaren arabera Zerga Administrazioari jakinarazi behar zaizkion datu pertsonak emateko, ez da eragindako pertsonaren baimenik behar. Esparru horri dagokionez, abenduaren 13ko 15/1999 Lege Organikoak, Datu Pertsonalen Babesari buruzkoak, 21. artikuluan 1 apartatua xedatutakoa ez da aplikatuko. “

Era berean, Zergen Foru Arau Orokorreko 92. artikulua honako hau ezartzen du, zerga datuen lagapenari buruz:

“1. Zerga Administrazioak bere eginkizunak betetzean eskuratzen dituen datu, txosten edo aurrekariak izaera erreserbatua dute, eta berak kudeatu behar dituen zergak edo baliabideak modu eraginkorrean aplikatzeko eta zigorrak ezartzeko baino ezin dira erabili. Hortaz, ezin izango zaizkio beste inori utzi edo jakinarazi, non eta horren xedea honako hau ez den:

.....
b) Beste zerga administrazio batzuei laguntzea beren eskumenen esparruan sartzen diren zerga obligazioak betetzeko.

.....
d) Beste edozein herri administrazioekin elkarlanean aritzea, fondo publikoetatik edo Europar Batasunetik ematen diren diru laguntzak lortu edo jasotzean egiten den delitu fiskalaren eta iruzurraren aurka borrokatzeko.

.....
j) Zergaz kanpoko baliabide publikoak biltzeaz arduratzen diren zuzenbide publikoko organo eta entitateei laguntzea ordaintzera behartutakoak behar bezala identifikatzeko.

.....
l) Herri administrazioekin eta sektore publikoko gainerako entitateekin lankidetzan aritzea euren eginkizunak bete ditzaten, emandako datuetan aipatzen diren zergapekoek baimena eman ondoren.

m) Euskal Autonomia Erkidegoko lurralde administrazio publikoekin elkarlanean aritzea, haren eskumeneko zuzenbide publikoko sarrerak biltzeko.

.....”

Aurrekoarekin bat, 2014ko otsailaren 24ko 148/2014 Foru Aginduak, informazioa emateko lankidetzaren hitzarmen ereduak, Gipuzkoako Ogasun eta Finantza Departamentuaren eta Gipuzkoako Lurralde Historikoko udalen artean sinatzekoa, onartu zuen.

Horrenbestez, aipatutakoa kontutan hartuta, Udalbatzarrak, Ogasun batzorde informatzailearen proposamena jarraiki, eta bertaratutako udalbatzarkide guztiek alde bozkatuta, honako hau ERABAKI DU:

Lehenengoa.- Informazioa emateko lankidetzaren hitzarmena sinatzea, 2014ko otsailaren 24an emandako 148/2014 Foru Agindu bidez onartutako ereduari jarraiki, bere A1, A-2, A-3 eta A-4 eranskinekin batera.

Bigarrena.- Sinatzea ondoren zehazten diren eranskin ereduak Gipuzkoako Foru Aldundiko Ogasun eta Finantza Departamentuak informazioa emateko Udalarari: D-1, D-2, D-3, D-4 eta D-5.

Hirugarrena.- Alkate-lehendakariari ahalmena ematea aipatu hitzarmena Eskoriatzako Udalaren izenean eta ordezkartzan sina dezan.

LAUGARRENA.- Gipuzkoako Foru Aldundiko Ogasun eta Finantza Departamentuari erabaki honen berri ematea, horretarako dagokion ziurtagiria eginez, eta halaber, hitzarmenaren bi ale bidaltzea, alkate-lehendakariak sinatuta.

12.- AXTROKI MERKATARI ELKARTEAREKIN HITZARMENA SINATZEA **AXTROKI IZENEN TOKIKO MONETA SISTEMA EZARTZEKO.**

Eskoriatzako Udalak interesa du toki garapena sustatzeko, eta sustapen hori osotasunetik egin nahi du, garapen horrek ekonomia, gizartea eta ingurumena bildu behar dituela ulertuta.

Helburu horrekin, Udalbatzarrak, 2013ko abenduaren 17an egindako osoko bilkuran, toki garapena sustatzeko diru laguntzak arautzeko oinarriak onartu zituen. Diru laguntza horiekin garapen soziala eta jasangarria sustatu gura dira Eskoriatzan.

Baina, tokiko ekonomia indartzeak, alde batetik, oinarri horietan aurreikusitako neurriek elkar eragitea eskatzen du, eta bestetik, eragin zuzenena tokiko kontsumoa suspertzean izatea. Horretarako, Udalak zuzenean parte hartu nahi du tokiko moneta sistema baten ezarpenean. Hori dela-eta, oinarrietan bertan aurreikusi da diru laguntzak AXTROKI monetarekin ordaintzea, herriko dendetan bakarrik aldatu ahal izango diren monetetan.

Horrela, hasiera batean esan den moduan, toki garapena helburu duten neurri ekonomikoak, sozialak eta ingurumenekoak ezarri nahi ditu.

Tokiko monetaren (soziala, komunitarioa, osagarria... izenak ere hartzen ditu) helburu nagusietako bat tokiko proiektu ekonomiko eta sozialak sustatzea da, eta horrekin batera, bertako aktiboak eta baliabideak balorean jartzea; eta arrazoi horiengatik, Udalak berak parte hartuko du sistema hori martxan jartzen. Ezarriko den tokiko moneta, AXTROKI

izenekoa, ez da eratu nahi moneta ofizialaren aurka, baizik eta tokiko baliabideak mobilizatzea ahalbidetuko duen tresna osagarri bat bezala. Azken finean, moneta horrekin Udalak trukea lagundu gura du, izan ere, interesik sortuko ez duenez, iraungitze data izango duenez eta berarekin espekulatzeko aukerarik egongo ez denez, bermatuta dago truke sistema bezala oso erraz aldatuko dela esku batetik bestera.

Bestalde, kontsumoa herrian bertan egin dadin sustatzeko helburuarekin ere, Udalak AXTROKI tokiko monetan ordainduko die 2014an berak deitutako sarien irabazleei, oinarrietan horrela jasotakoan.

“AXTROKI merkatarik elkartea” irabazi asmorik gabeko elkartea da, eta bere helburu sozialen arabera, Udalarekin lankidetzan aritu nahi du goian aipatutako helburuak lortzeko.

Kontuan izan behar da egungo egoera ekonomikoak, eta horrek dakarren salmenta jaitzierak, arriskuan jartzen dutela Eskoriatzako merkataritza sare txikiaren egonkortasuna, eta horrek sektore horretan enplegu asko galtzea ekar dezakeela. Beraz, Axtroki merkatarik elkarreak uste du Udalak hartutako neurriei bere laguntza ematea ezinbesteko baldintza dela kontsumoa suspertzeko herrian eta jarritako helburuak bete daitezela bermatzeko.

Toki garapena sustatzeko diru laguntzak arautzen dituzten oinarrietako 12. artikuluan aurreikusten da Axtroki merkatarik elkarrekin lankidetzan aritzearen aukera.

Aurrez esandakoa kontuan izanik, eta jarritako helburuak lortzerakoan ahalik eta eraginkortasun handiena lortzeko, Ogasun batzorde informatzaileak egindako proposamenaren arabera, Madinabeitia jauna eta Arkarazo andrea abstenituta, eta bertaratuak gainerako zinegotziek alde bozkatuta, honako hau proposatzen zaio Udalbatzarrari:

Lehenengoa.- Lankidetzak hitzarmena sinatzea AXTROKI merkatarik elkarrekin AXTROKI izeneko tokiko moneta ezartzeko. Hitzarmenaren baldintzak honen eranskin gisa doaz.

Bigarrena.- Alkate jaunari eskumena ematea aipatutako hitzarmena sinatzeko Udalaren izenean eta hau ordezkartzen.

ERANSKINA

BALDINTZAK

Lehena. Hitzarmen honek AXTROKI izeneko tokiko moneta ezartzeko Eskoriatzako Udalaren eta AXTROKI Merkatarik Elkarrekin arteko lankidetzak bideak jartzen ditu.

Bigarrena. AXTROKI Merkatarik Elkarrekin funtzioa honako hau izango da:

- a) Eskoriatzako merkatariei elkarrekin kide egiteko, programan parte hartzeko eta beraien produktuak Udalak jaulkiko duen Axtroki izeneko herri monetan ordaintzea onartzeko eskatzea.
- b) Udalak tokiko monetan emango dituen laguntzak beraien produktuengatik eta zerbitzuengatik trukatzeko baldintzei eta moduari buruz egingo den informazio kanpainan laguntzea.

- c) Eskoriatzako herriko merkataritzan kontsumoa suspertzeko ekintzak egitea toki garapen integralaren printzipioetan oinarrituta, hau da, garapen sozialean, ekonomikoan eta ingurumenekoan.
- d) Parte hartze zuzena izatea tokiko moneta sistema ezartzerakoan.
- e) Merkatarari elkartearen AXTROKI moneta lokal propioa zuzenean jaulkitzea, elkartearen logotipoa bertan jarrita.
- f) Elkarrekin jaulkitako moneten balorearen gordailu baliokidea bermatzea eurotan.

Hirugarrena. AXTROKI Merkatarari Elkarrekin hartzen dituen konpromisoak.

AXTROKI Merkatarari Elkarrekin, bertako kide diren establezimendu guztien izenean, honako konpromiso hauek hartzen ditu:

Elkarrekin atxikitako denda eta establezimendu guztietan Udalak jaulkitako AXTROKI moneta lokalarekin produktuak zein zerbitzuak erostea onartzea.

Merkatariek beraien prestazioa ordainduzat emango dute horien prezioaren baliokidea AXTROKIETAN ordainduta.

Laugarrena. Eskoriatzako Udalak hartzen dituen konpromisoak.

Udalak honako konpromiso hauek hartzen ditu:

- AXTROKI moneta lokalaren erabilera sustatzea.
- AXTROKI izeneko tokiko moneta zuzenean jaulkitzea eta bere erabilera herrian sustatzea axtrokietan ordainduz 2014an emango dituen sarietako batzuen onuradunei eta tokiko garapena sustatzeko diru laguntzak arautzeko oinarrietan jasotako diru laguntzen onuradunei (Udalbatzarrak onartutakoak 2013ko abenduaren 17an, eta GAOko 3. zenbakian argitaratuta 2014ko urtarrilaren 7an).
- AXTROKI tokiko monetak euroengatik aldatzea erakunde laguntzaileari atxikitako herriko merkatariek Udalak berak jaulkitako axtrokiak Udalera eramandakoan. Baliokidetzat euro 1 AXTROKI 1 izango da.

Bosgarrena. Udalak jaulkitako AXTROKIAK aldatzeko prozedura.

- Aldaketa edo trukea horrela egingo da:
 - Erakunde laguntzaileari atxikitako merkatariek ondasunak edo zerbitzuak trukatzeari jasotako AXTROKIAK (Udalak jaulkitakoak) udal diruzaintzan entregatu beharko dituzte. Axtrokiak hileko lehen 5 lanegunetan entregatu beharko dira, 10:00etatik 14:30etara (larunbatetan izan ezik).
 - Udalak, behin moneta faltsua ez dela egiaztatu eta monetaren zenbakia urte horretan deitutako prozesuetan emandakoa dela ikusi ondoren, beraien ekarritakoaren baliokidea eurotan emango dio merkatarari bakoitzari hileko hirugarren astearte baliodunean.
 - Aldaketa egiteko azken hilabete balioduna hurrengo urteko urtarrila izango da. Hilabete horretan hilaren 10etik 15era arteko lanegunetan egin ahal izango da aldaketa. Egun horiek Axtrokiak aldatzera Udalera etorri gabe igaroz gero, horien baliokideak eurotan jasotzeko eskubide guztia galduko du merkatarariak. Hau da, jaulkitako monetak iraungitze data izango dute, bakar bakarrik hurrengo urtarrilaren 10a baino lehen egindako salerosketetarako balioko dute.

Seigarrena. Ez da kontraprestazio ekonomikorik finkatzen ERAKUNDE LAGUNTZAILEARENTZAKO, eta ez da ezartzen ere dagokion bermea aurkeztu beharra.

Zazpigarrena. JARRAIPEN BATZORDEA

Alde biek beharrezko ikusten dute hitzarmen honen jarraipen batzorde bat eratzea. Batzordea alde bietako hiru ordezkari osatuko dute, eta bere eginkizun nagusia hitzartutako aurreikuspenak eta konpromisoak betetzen direla ikustea izango da, eta orokorrean, etorkizunean sortu daitezkeen gorabehera guztiei erantzutea.

Eskoriatzako Udalaren ordezkariak batzordean honako hauek izango dira:

- *Ekonomia eta enplegu arloko zinegotzi arduraduna.*
- *Ekonomia eta enplegu arlora atxikitako museoko teknikaria.*
- *Kontabilitate arloko teknikaria.*

AXTROKI Merkatari Elkarteko ordezkariak batzordean honako hauek izango dira:

- *Lehendakaria.*
- *Idazkaria.*
- *Diruzaina.*

Hitzarmen honen interpretazio eta exekuzioari buruz egon daitezkeen eztabaidak alde biak, Jarraipen Batzordearen bidez, ados jarrita konpondu beharko dira.

Ezingo balitz adostasun horretara iritsi, egon daitezkeen eztabaidak Administrazioarekiko Auzien Jurisdikzioari buruzko uztailaren 13ko 29/1998 Legeak ezarritako moduan konpondu beharko dira.

Zortzigarrena. Hitzarmen hau bakar bakarrik lehenengo baldintzak zehaztutako helburua betetzera mugatzen da, eta sinatzen den egunetik 2014ko abenduaren 31ra arte izango du indarra.

Bederatzigarrena. Hitzarmen honek administrazio izaera du, eta Administrazioarekiko Auzien Jurisdikzio-ordenean inpugnatu ahal izango da.

Azaroaren 14ko 3/2011 Legegintzako Errege Dekretuz onartutako Sektore Publikoaren Kontratuei buruzko Legearen Testu Bategineko 4.1.d) artikuluan ezarritakoaren arabera, hitzarmen hau bere aplikazio eremutik kanpo gelditzen da, hala ere, hitzarmena betetzerakoan sor daitezkeen zalantzak edo arazoak interpretatu, aldatu edo konpontzeko arau subsidiarioa izango da.

13.- EZCURRA ESKO S.A. ENPRESAK ABALA ITZULTZEKO EGINDAKO ESKAERA.

EZCURRA ESKO S.A. enpresak eskaria egin du 1995eko apirilaren 28n jarritako abala itzultzeko. Abal hori EZCURRA-ESKO S.A. enpresari I-3 arean zegozkion urbanizazio obren zati bat exekutatzearatik sortutako betebeharrei erantzuteko bermea zen.

Eskaera aztertuta, Ogasun batzorde informatzaileak egindako proposamenaren arabera, eta bertaratutako udalbatzarkide guztiek alde bozkatuta, Udalbatzarrak honako hau ERABAKI DU:

Lehenengoa.- BANCO CENTRAL HISPANOAMERICANO S.A. banketxeak EZCURRA-ESCO S.A. enpresaren alde emandako 4.500.000 pezetako abalaren kitapena baimentzea. Abal hori, EZCURRA-ESKO S.A. enpresari I-3 arean zegozkion urbanizazio obren zati bat exekutatzegatik sortutako betebeharrei erantzuteko bermea zen.

Bigarrena.- Aipatutako abalaren orijinala interesdunari ematea abalaren kitapena izapidetu dezan.

Hirugarrena.- Erabaki hau interesdunari jakinaraztea, adieraziz honen aurka berraztertze errekurtsua jar diezaiokeela Udalbatzar honi hilabeteko epean jakinarazpen hau jasotzen duen egunaren biharamunetik kontaktzen hasita, edo administrazioarekiko auzi-errekurtsua bi hilabeteko epean, Donostiako dagokion maila bereko Auzitegian, guzti hori egin gura dituen bestelako egintza edo errekurtsuak aurkeztearen kaltetan gabe.

14.- ETORKINEN ERAGIN HANDIENA DUTEN UDALETAKO GIZARTE ZERBITZUETARAKO EUDELEK DENBORA ERREALEAN ETA TELEFONO BIDEZ EGITEKO DUEN ITZULPEN ETA INTERPRETazio ZERBITZU EZ-PRESENTZIALERA ATXIKITZEA ESKORIATZAKO UDALA.

Ogasun batzorde informatzaileak egindako proposamenaren arabera, eta bertaratutako udalbatzarkide guztiek alde bozkatuta, Udalbatzarrak honako hau ERABAKI DU:

Lehenengoa.- Etorkinen eragin handiena duten udaletako gizarte zerbitzuetarako EUDELEK denbora errealean eta telefono bidez egiteko duen itzulpen eta interpretazio zerbitzu ez-presentzialera atxikitzea.

Bigarrena.- Beinat Herce Leceta Alkate jaunari ahalmena ematea onartutako atxikimendua gauzatzeko beharrezko diren dokumentu publiko edo pribatuak sinatzeko.

15.- ONARTUTAKO ESKUBIDEEI BAJA EMATEA.

Preskribatuta egoteagatik, kreditu kobraezin deklaratura egoteagatik, bidezkoak ez izateagatik, bikoiztuta egoteagatik edo beste arrazoiren batzuegatik aurreko ekitaldietatik kobratu gabe gelditu ziren eskubideen baja onartzeko, denak ere 2013ko zerga aldikoak, diru bilketa zerbitzuak tramitatutako espedientearen berri eman da,

Ogasun batzorde informatzailearen diktamena **IKUSI DA.**

Diktamena botoetara jarrita, Udalbatzarrak, bertaratutako udalbatzarkide guztiek alde bozkatuta, honako hau ERABAKI DU:

LEHENENGOA.- 2013ko ekitaldiari dagozkion eta kobratzeko dauden eskubideei baja emateko talde espedienteak onartzea ondorengo taulan agertzen diren kontzeptuegatik, subjektu pasiboei eta diru kopuruengatik:

(*)KONTZEP/EPEA/Z KIA	ZENBATEK OA (€)	ZERGADUNA	ZERGATIA
090.201301.186	252,37	MTNEZ DE LA HIDALGA ERAÑA, IKER	Jabekidetzeta amaituta. Ez dagokio kitapenik.

(*)KONTZEP/EPEA/Z KIA	ZENBATEK OA (€)	ZERGADUNA	ZERGATIA
090.201301.185	12,68	MTNEZ DE LA HIDALGA ERAÑA, IKER	Jabekidetzeta amaituta. Ez dagokio kitapenik.
090.201301.142	186,64	ELORRETA, S.COOP.	Bi aldiz likidatua.(37 kitapen zenb)
090.201301.141	217,35	ELORRETA, S.COOP.	Bi aldiz likidatua.(30 kitapen zenb)
090.201301.99	170,20	ARANDO URIBE, M.LUISA	Bi aldiz likidatua.(98kitapen zenb)
003.201303.870	39,72	GOROSARRI ZUBIZARRETA, M.BE-GOÑA	Bi aldiz alta emanda toma bat (Aniketa Gorosarri)

BIGARRENA.- Erabaki honen berri ematea Kontuhartzailletza eta Diruzaintza udal zerbitzu ekonomikoei beste arrazoiren batzuegatik preskribatutzat edo baliogabetutzat deklaraturako zorrei baja eman diezaieten kontabilitate eta diru-bilketa kontuetan.

16.- ESKORIATZAN KIROL ZERBITZUA EMATEKO KONTRATAZIOA: BALDINTZA AGIRIA ONARTZEA ETA KONTRATAZIO ESPEDIENTEA HASTEA.

Eskoriatzako Udalbatzarrak, 2010eko otsailaren 24an egindako bilkuran, ondorengo erabakiak hartu zituen kirol jarduerak kudeatzeko 2008ko urtarrilaren 30ean esleitutako kontratuari buruz.

Lehenengoa.- 2008ko urtarrilaren 30eko erabakiz kirol jarduerak kudeatzeko GOIENA SPORTi esleitutako kontratua amaitutzat jotzea 2010eko otsailaren 28tik aurrerako ondorioekin.

Bigarrena.- Zerbitzu horien kudeaketa prozedura ireki bidez esleitzeko kontratazio espedientea izapidetzen den artean eta prozedura erabaki arte, zerbitzuaren kudeaketa GOIENA SPORTi esleitzea etendako kontratuan ezarritako baldintza beretan.

2013ko urriaren 29an egindako osoko bilkuran, Eskoriatzan kirol zerbitzuak emateko kontratua esleitzeko espedientea hastea erabaki zen. Baina, espedientean jasotako arrazoiengatik, hasitako lehiaketa prozedura bertan behera uztea erabaki zuen Udalbatzarrak 2014ko otsailaren 25ean egindako bilkuran.

Hasitako espedientean ikusitako akatsak zuzenduta, Kultura batzorde informatzaileak, Kirol azpibatzailearen proposamenez, berriz ere kontratazio espedientea hastea eta helburu horretarako egindako baldintza agiriak onartzea proposatzen du.

Egindako proposamenarekin bat, Udalbatzarrak, Merino jauna abstenituta eta gainerako udal batzarkideek alde bozkatuta, honako hau ERABAKI DU:

Lehenengoa.- Eskoriatzan kirol zerbitzuak prozedura ireki bidez kontratatzeke espedientea onartzea eta kontratu hori arautuko duten baldintza administratibo partikularren agiria ere onartzea.

Bigarrena.- 61.735,63 €-ko gastua baimentzea indarrean dagoen aurrekontuko 0406.227.452.20.16 partidaren kargura, eta kontratu horretatik sortutako gastuei aurre egiteko beharrezko kredituak baimentzea datozen urteetan kontratuak eragina izango duen ekitaldien kargura.

Hirugarrena.- Esleipen prozedura irekitzeko agintzea.

Laugarrena.- Egungo kontratista den GOIENA SPORT S.L.-ri adieraztea kirol jarduerak kudeatzeko enpresa horri egindako esleipenak zuen baldintzaren arabera, egun indarrean dagoen kontratua indarrrik gabe geldituko dela 2014ko ekainaren 30ean, egun horretarako izapidetuta eta erabakita egotea aurreikusten baita erabaki honekin hasitako kontratazio espedientea.

Bosgarrena.- Laguntza eskatzea Bergarako eta Legazpiko udalei bertako kirol teknikariek (Iñaki Ugarteburu eta Peio Garmendia) eta Eskoriatza Udalak kontratatuta duen kirol aholkulariarekin (Rosa Lasagabaster) batzorde bat osatzeko eskaintzak baloratzeko.

17.- OLAZAR JUBILATU ETXeko TABERNA-ARETO ZERBITZUA USTIATZEKO ESKUBIDEAREN ESLEIPEN KONTRATUA LUZATZEA.

Udalbatzarrak 2012ko otsailaren 16an hartutako erabakiz, Eskoriatzako jubilatuen etxeko taberna-areto zerbitzua erabiltzeko eta ustiatzeko kontratua esleitu zitzaion Juan Luis Eraña Altuna jaunari. Kontratuaren hasierako iraupena 2 urtekoa zen.

Kontratuaren hirugarren baldintzaren arabera, epe hori 2 urtez luza daiteke, behin eta berriz jarraian, guztira 20 urte egin arte kontratuko epea eta luzapenak kontatuta. Luzapena berariaz erabaki behar da, Sektore Publikoko Kontratuei buruzko Legearen Testu Bategina onartu zuen azaroaren 14ko 3/2011 Legegintzako Errege Dekretuko 23.2. artikulua arabera.

Kontratua kudeatzeko ardura duen zerbitzuak txostena egin du, eta bertan esaten du onuragarri ikusten duela kontratua aipatutako eperako luzatzea.

Era berean, proposatutako luzapenarekin kontratista ados dagoela jasotzen da.

Aipatutako artikulua arabera, kontratuaren luzapena kontratazio organoak erabakiko du, kasu honetan, Udalbatzarrak.

Aurrez esandakoaren arabera, Gizarte Zerbitzuetako Batzorde Informatzaileak egindako proposamenarekin bat eginda, eta udalbatzarkide guztiek alde bozkatuta, Udalbatzarrak honako hau ERABAKI DU:

LEHENENGOA.- Eskoriatzako jubilatuen etxeko taberna-areto zerbitzua erabiltzeko eta ustiatzeko emateko kontratua BI URTEZ luzatzea, baldintza agiriko hirugarren baldintzan eta Sektore Publiko Kontratuei buruzko Legearen Testu Bategina onartzen duen azaroaren 14ko 3/2011 Legegintzako Errege Dekretuko 23. artikuluan ezarritakoaren arabera.

18.- EZKER ANITZAREN ESKARIZ AURKEZTUTAKO MOZIOA ERREGISTRO ZIBILAREN PRIBATIZAZIOAZ.

Merino jaunak ondoren osorik transkribatzen den mozioaren xedapena irakurri du:

ERREGISTRO ZIBILAREN PRIBATIZAZIOAREN AURKAKO MOZIOA

Erregistro Zibila 1870 urtean sortu zen, 1868ko iraultzaren ondorioz, I. Errepublikak ekarri zuen

MOCION CONTRA LA PRIVATIZACION DEL REGISTRO CIVIL

El Registro Civil se creó en el año 1870 como consecuencia de la revolución de 1868 que trajo la I Repú-

iraultza honek, eta laizismoa ere, Estatua eta Eliza bananduz, ordu arte Elizak bakarrik inskribatzen zituen jaiotzak.

Espainiako Gobernuak, eta zehazki, Justizia Ministerioak, lege aurreproiektua prestatu du, Erregistro Zibila pribatizatzeko, eta eskumen hori Jabetza erregistratzaileei pasatzeko. Gogoratu behar dugu higiezinaren burbuilaren amaiera dela eta erregistratzaileen diru sarrerak asko jaitsi direla alde batetik, eta bestetik Rajoy bera jabetza erregistratzailea dela.

Herri Administrazioiek, bai Estatukoa bai EAEkoa, 180 milioi euro inbertitu dute azken urteetan Erregistro Zibila informatizatzeko, eta diru hori pribatizazio honekin xahutu edo oparitu egingo da.

Hiritarrentzat pribatizazio honek ondorio txarrak ekarriko ditu:

- Orain arte doakoak diren zerbitzuen truke ordaindu beharko dituzte: ezkontza, jaiotza edota heriotzak inskribatzeagatik, adibidez. Beste berrordaintze bat sortzen da.

- Orain arte bere udalerrian ematen den zerbitzu bat jasotzeko beste herri batera mugitu beharko dira. Herri gehienetan ez dago Jabetza Erregistrorik, eta horregatik lege honekin Jabetza erregistratzailea dagoen herri batera joan beharko dira, edonorentzat nahitaezkoak diren izapidetzeak egin ahal izateko. Honez gain pribatizazio honek bake epaitegi gehienek desagertzea ekarriko du, bere lan nagusia kentearekin batera, eta horrek lanpostu publiko eta hurbileko zerbitzuen desagertzea suposatuko du.

Eсандako kontuan hartuta, Ezker Anitza-Izquierda Unidaren ordezkariak honako AKORDIOAK proposatzen dizkio Udalbatza hori:

1. Eskoriatzako Udalak adierazten du beharrezkoa dela Erregistro Zibila orain arte bezala mantentzea, herritarrei zerbitzu doakoa eta publikoa eskaintzen jarraitzeko.

2. Eskoriatzako Udalak babesten eta baloratzen du bake-epaitegiek haien lana EAEn dauden 237 epaitegietan eskaintzen jarraitzeko beharra eta, beraz, Eusko Jaurlaritzari eskatzen dio defenda dezala Erregistro Zibila zerbitzu doako eta publiko gisa, zeinak bermatuko baitu herritarrek egin beharreko tramiteen azkartasuna eta erraztasuna, bere gain hartuz Erregistro Zibilar buruzko 20/2011 Legean aurreikusitakoaren arabera arlo horretan autonomia-erkidegoei dagozkien izaera exekutiboko eskumenak.

3. Eskoriatzako udalak Espainiako Gobernuari eskatzen dio erretiratu dezala Erregistro Zibila pribatizatzea aurreikusten duen eta bake-epaitegiak desagertzea bultzatuko duen Justizia Ministerioaren lege-aurreproiektua

4.- Akordio hauen berri ematea, Espainiako

blica con su laicismo, separando la Iglesia del Estado, hasta entonces era sólo la Iglesia quien inscribía los nacimientos.

El Gobierno español, y en concreto su ministro de Justicia, ha preparado un anteproyecto de ley para privatizar el Registro Civil, y traspasar esta competencia a los registradores de la propiedad. Hay que recordar que los registradores han visto disminuir sus ingresos con el fin de la burbuja inmobiliaria, y que el propio Mariano Rajoy es registrador de la propiedad en excedencia.

Las administraciones públicas, central y vasca han invertido en los últimos años 180 millones de euros para informatizar el Registro Civil, dinero que será regalado o dilapidado con esta privatización.

Esta privatización supondrá para la ciudadanía graves perjuicios:

- Tendrán que pagar por servicios que hasta la fecha eran gratuitos: inscripciones de bodas, nacimientos, defunciones,...etc. Se crea un nuevo copago o repago.

- Tendrán que desplazarse para obtener un servicio que hasta ahora se prestaba en su municipio. En la mayoría de municipios no existe Registro de la Propiedad, y habrá que desplazarse a aquel municipio que lo tenga para poder realizar trámites imprescindibles para la vida de cualquiera. Además esta privatización supondrá la desaparición de la inmensa mayoría de los juzgados de paz, al privárseles de su principal función, con la consiguiente pérdida de empleo público y de servicios de cercanía.

Teniendo en cuenta lo expuesto, la representación de Ezker Anitza – Izquierda Unida propone al pleno municipal la adopción del siguiente acuerdo:

1. El Ayuntamiento de Eskoriatza manifiesta la necesidad de que el Registro Civil se mantenga tal y como está en la actualidad prestando un servicio gratuito y público a la ciudadanía.

2. El Ayuntamiento de Eskoriatza apoya y valora la necesidad de que los juzgados de paz continúen prestando sus trabajo en los 237 juzgados existentes en la CAV y, por tanto, insta a la sociedad y al Gobierno Vasco a la defensa del Registro Civil como servicio público y gratuito, que asegure la agilidad y facilitación de los trámites que debe realizar la ciudadanía, asumiendo las competencias de carácter ejecutivo que corresponden a las CCAA en esta materia de conformidad con lo previsto en la Ley 20/2011, de Registro Civil.

